

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Kazetaritza Nafarroako Liburutegiaren programazioan izango da datozen asteetan

Asteazkenean, topaketa bat egingo dute Jorge Nagore kazetariak eta Maite Pérez Larumbe idazleak, Al natural zikloaren barruan

Asteartea, 2019.eko otsailak 5

Datozen asteetan, kazetaritza pil-pilean egongo da Nafarroako Liburutegiaren kultura-programazioan, ziklo hauen bidez: "[Repensar los medios de comunicación: pasado, presenta y futuro del Periodismo](#)" eta "[Al natural](#)", solas kateatuak.



Nafarroako Liburutegiaren programazioa datozen hilabeteetarako.

Hala, azken horri dagokionez, otsailaren 6an,

asteazkena, Jorge Nagore kazetariak eta Maite Pérez Larumbe idazleak topaketa bat egingo dute zentroaren lehenengo solairuan, eta martxoaren 6an, berriz, Nagore José María Belcos kazetariarekin solasean arituko da.

Bestalde, otsailaren 12an, Repensar los medios de comunicación: pasado, presente y futuro del periodismo izeneko zikloa hasiko da. Egun horretan, arratsaldeko zazpjetatik aurrera, Javier Pagola kazetaria Ángel Zoco historialariarekin solasean arituko da Nafarroako prentsaren eta irratia jatorriari buruz.

Gainera, otsailaren 19an, ordu berean eta Liburutegiko areto berean, mahai-inguru bat izango da hainbat alderdiri buruz eztabaidatzeko; besteak beste, hauei buruz: fake news izenekoak, manipulazioa, eta kazetaritzak gizarte demokratikoetan duen garrantzia. Alicia Ezker kazetaria (Diario de Noticias) izango da moderatzailea, eta hauek hartuko dute parte: Ramón Salaverria, Nafarroako Unibertsitateko irakaslea eta kazetaritza digitalean aditua; Javier Erro, kazetaria, soziologoa eta Komunikazio Publikoko irakaslea UPNAn; eta Hildegart González, sareetan eta komunikazioan aditua eta Nafarroako Unibertsitateko irakaslea.

Azkenik, otsailaren 26an, berriz ere Javier Pagola Ignacio Iriarterekin mintzatuko da hedabideetan gertatzen ari diren aldaketa handiei buruz. Iriarte UPV/EHUko Informazio Enpresako katedradun emeritua da.

Latinoamerikako kazetaritza

Azkenik, martxoaren 7an, Leila Guerriero kazetari argentinarrek hitzaldi bat emango du Latinoamerikako kazetaritzari buruz, «La crónica como género literario» izenekoak. 17:30ean izango da, eta Nafarroako

Liburutegiak eta Nafar Ateneoak antolatu dute.

Leila Guerrieroren kronikak eta erreportajeak hainbat herrialdetako hedabideetan argitaratzen dira; besteak beste, hauetan: Argentinako La Nación eta Rolling Stone; Espainiako El País eta Vanity Fair; Kolonbiako El Malpensante eta SOHO; eta Txileko Paula eta El Mercurio.

Gainera, Gatopardo aldizkari mexikarraren argitaratzailea da Latinoamerikarako. 2010ean, Nuevo Periodismo Iberoamericano Fundazioaren sarien bederatzigarren edizioa irabazi zuen, testu-kategorian, «El rastro en los huesos» kronikari esker. Bertan, Argentinako Auzitegi Antropologiako taldeak diktadura militarrean desagertutakoen hondakinak identifikatzeko egiten duen lana azaltzen du.